

SAIOA ALKAIZA GUALLAR

«Finalera ahalik eta zorrotzen eta sortzaileen joaten ahaleginduko naiz»

Iruñea, 1991. Zortzitan parte hartu du txapelketan eta 2021ean iritsi zen lehen aldiz finalera. Txapela jantzi zuen.

Zementuzko txapela aipatu zenuen finalaurrekoan. Txapelak karga dauka?

Txapelak ez dit pisatu, baina bai kanpo begiradak, proiektzioak edo kinielek. Dena dela, uste dut asmatu dudala horri iskin egiten, finalaurreko ona egin nuela uste dut eta are hobeto egin dezakedala pentsatzen dut. Batez ere nekea izan da zama. Hiru txapelketa jarraian egin ditugu, hiru urte segidan, eta horrelakoetan zaila da bertsokerak garapena izatea. Kinielek eta lehiaren absurdoak ekarri zidaten pisua hasieran, baina uste dut buelta eman diodala.

Aldarte ona duzu, beraz, finalera begira.

Uste dut inoizko maila onean nagoela. Finalak plaza handi bat ematen dizu, eta askatasuna, neurri batean. Lasai nago nire sorkuntza mailarekin eta zorrotz eginez gero eta begirada finduz gero, daukadan maila eman dezaket. Finen egun bakarrean jokatzeko duzu dena eta finalean argi egon nahi nuke.

2021ean bezain argi?

Zaila da, baina egia da finalean badaudela egoera hori ahalbidetzen duten elementu batzuk; jende asko dago, publikoa bero dago, ariketa guztiak

baldintza antzekoetan jokatzen dira... finalean denok baldintza berdinetatik abiatzen gara eta sekulako plaza da. Denok saiaturako gara argi egoten, ni barne. Gogotsu nago.

Duela bi urteko finalaren oroitzapen gozoa izango duzu segur aski, arratsalde biribila josi zenuen.

Uste dut lehen finalaren abantaila izan nuela, dena irabazteko neukala sentitzen nuen. Ez neukan galtzeko ezer, hor egote hutsa aurrerapauso bat zen. Aurtengoan abiapuntua desberdina da; berriz borrokatu behar duzu lehen postua edo, behintzat, ahalik eta maila onea eman. Ni nire maila onena ematen saiaturako naiz. Plazan oso argi ikusten dut nire burua, plazako jardunean oso gustura ari naiz. Txapelketan dena zurrundu egiten da eta uste dut oraindik ez dudala ahal dudana maila eman. Gustatuko litzaidake finalean horretarako aukera izatea. Zaila da, baina ahalik eta zorrotzen eta sortzaileen joaten ahaleginduko naiz.

Finaleko zortzikoteari begirata, txapelerako presioa nahiko banatuta dago, buru asko ikusten dira txapelerako hautagai.

Presioa banatuta egotea publikoarentzat da polita, batez ere. Nafarroako bertsogintzaren egoera oso ona da zorionez, aurpegi berriak badaude, bagaude Euskal Herrikoan aritu garenak... maila altua dagoela uste dut eta horrek ona izateko



elementuak ematen dizkigu guri, publikoari eta saioari orokorrean. Nafarroako bertso maila igo egin dela uste dut eta finala oso interesgarri datorrela.

Bi emakume izango zarete finalean, azken hamazazpi urtean lehenbizikoz.

Nafarroako plaza jardunean oraindik %17 gara emakumeak eta ez dut uste txaloka hasi behar dugunik finalean bi emakume gaudelako. Egiturazko arazo bat daukagu.

Niretzat bi aurpegi berri egoiteak, bai Saraik eta bai Saatsek, eskainiko diote berrikuntza finalari. Publikoan ere igarriko da, jende berria etorriko da seguru. Niretzat sekulako poza da Nafarroako finala gaztetzen ari dela ikustea eta estilo berriak datozela ikustea.

Txapelduna errepikatu daiteke beraz.

Tira, askotan errepikatu dira txapeldunak Nafarroan.

Bertsotarako oso prest eta grinatsu sumatu zaitugu txapelketan zehar.

Bertsoa txapelketaren parte bat da eta beste parte psikologikoa dela uste dut. Txapelketan parte handi bat da nola zauden aldarte, lortzen ote duzun zure kontzentrazio mailara iristea... Altsasun lortu nuen kontzentrazio maila egoki batera iristea, baina uste dut are gehiago kontzentratu behar naizela.

Zentzu horretan, uste dut oholtzan eta oholtzatik kanpo oso jarrera desberdinak ditudala. Akaso ematen du oso serio nagoela, baina benetan kontzentratuta nago. Azkenean, txapelketan ez da bakarrik bertsotan egitea, faktore garrantzitsua da nola eusten diozun lehiaren exigentzia horri.

Bada, bertso arratsalde ederrez gozatzeko pronto dago entzulea.

Bai, gustatuko litzaidake ahalik eta saio ederrena osa dezagun denon artean. Iruditzen zait aurten finala indartsu datorrela eta denon artean badugula taldetasun sentsazio eder bat. Batera zerbait polita sortzeko grina dugu.